

## MANTEROLA'tar GABIREL'eri (Zeanuri'n, 1990-3-17'an)

Solozabal'dar Paulin olerkariak benetan maite eban Gabirel eta orregaitik, biotz-biotzetik abestu eutson bazkal-ostean olerki au. Bere bertsoetan eta olerkietan sarritan egiten dauan lez, Paulin'ek Euskalerriko izadia, gizona ta lana alkartzen dauz, baiña begiratu dagigun gauzea zeatzago.

Lenengo aapaldian arkaitz-gaillur eta mendiak aitatzen dira, Lekanda gogoan zalantza barik, eta, nortasuna ba'lebe lez, zelai eta solo-zabaletara begira, ametsetan, zein ederrago leiaketan ikusten doguz.

Bigarren aapaldian, izadiko gauzarik ederrenetari-koak aitatzen dira: Lorea, landarak, ibaiak: larrosea alkar-tzen da maitasunagaz, zugatzak sendotasunagaz, zelaiak edertasunagaz eta ibaiak garbitasunagaz.

Urrengo aapaldi biak, baratz orretan bizi diran -giza-

kiak dabe gai, gizaki euskaldunak: Enda zarra, leiñar-gia, izkuntza bardinbagea.

Azkenengo aapaldian, izaditik, gizakia bide dala, egu-nari dagokion lez, Gabirel Manterola'ren omenaldira dator Paulin, bertsolarien antzera "in cauda venenum", azkenengo aapaldi onetan askatzen dau olerki osoaren korapilloa: euskal baratzean (izadia) jaioa, aita eta ama-ren bizia (gizadia), Gabirel zintzoa (gizona). Eta len ainbeste goratu dauan izkuntza, euskerea, da Gabi-rel'en aunditasuna: Errian xurgatu, gogo onenaz landu, lan eta olerkiz apaindu eban.

Orrelan aria arturik eta orrelan gaiak urregorik urren-gora egokiturik ondo ulertzen da olerki onen sakonta-suna ta edertasuna. Zor jakon Manterola'tar Gabirel idazle aundi eta apalari olako eder-giroko omen bat.

OLAZAR'tar MARTIN'ek

Euskalerriko lur mugaldetan  
inguru ederrak dira,  
arkaitz gallurrak eta mendiak  
zelaletara begira;  
zelai orleiak eta solo zabal  
ametsez adi begira,  
alkarren leiaz zein ederrago  
eta dan ikuspegira.

Baratzak daukaz larros gorriak  
maitasun garrez betiak,  
mendiak daukaz zugatz lerdenak  
enbor ederrez jantziak;  
zelaiak daukaz begiarentzat  
lora zurizko pitxiak,  
eta ibaiak daukaz ur garbi  
leiar eta saltariak.

Euzko gizadiak zer ete dauko...  
zuregan zagoz asmetan,  
izkuntz leiñargi zoragarria  
enda zarraren muñetan;  
euzko aditza, euskal jokoa  
arrigarriak benetan,  
bardingabea mundu guztiko  
izkuntz artu-emonetan.

Euskal baratzan artu zenduan  
aita ta amaren bizia,  
Gabirel zintzo, xurgatu zendun  
euskeraren arnasia;  
gogo onenazjardun zenduan  
lantzen izkuntza maitia,  
ainbeste lan ta olerki pitxiz  
apaindurik euskeria.

PAULIN'ek